



2010EKO EKAINAREN 9KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko ekainaren bederatzian, arratsaldeko seietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo eta Iñaki Saldaña Herrero.

Xanet Barreras Jauregi zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak, bilkurari hasiera eman eta puntu bat sartzea proposatzen du eguneko gai zerrendan, presazko izaeraz, Beneditarren artxibategiaren eraikitzeari dirulaguntza ematearena.

Tokiko Gobernu batzarrak onartu egiten du proposamena.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2010eko maiatzaren 12an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2010eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 5 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HAMABOST MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA HAMALAU EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO (115.654,60 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 10-11-005 zbk.dun esped.: zerbitzua ematea, astean hiru egun eta egunean ordu terdiz. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %8 izango da.

Haur saharaiuen aterpetxerako dirulaguntza.-

Brinkolako aterpetxera etorriko diren haur saharaiuentzat BI MILA ETA ZAZPIEHUN (2.700 €) EURO ematea.



IV.- UDALBIDERI LAGUNTZA .-

UDALBIDE Elkarlan Elkarteari lau mila eta bostehun (4.500 €) euroko dirulaguntza emateko eskariaren aurrean.

AURRETIKOAK

- I.- UDALBIDE Elkarlan Elkartearen xede nagusiak dira euskara babestu, garatu eta sustatzeko elkartasun fondoa eratzea eta euskal lurralde guztietako udal eta herritarren arteko harremana bultzatzea; hartara, helburua du ekimenak sustatzea hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiro, lurralde antolaketa, ekonomia garapena eta gizarte ongizate esparruetan, baita udalerriek eskumenak esleituak dituzten gainerako gaietan ere.
- II.- Egiaztatu da kreditu egokia eta behar adina dagoela, dirulaguntza emateak berarekin dakartzan betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko.
- III.- Udal honetako aurrekontuen betearazpen oinarrietan UDALBIDE Elkarlan Elkartearen alde dirulaguntza emateko aurreikuspena ezarri da, izen eta guzti ezarri ere, eta egiaztatu da elkartearen xedeak bat datozela udal eskumenekin, eta horrek frogatzen du bete egiten dela interes publiko eta sozialarekin bat etortzeko baldintza, huraxe baitute xede bai udalerririk honek bai aipatu elkartearak.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ikusirik indarra duten arauen artean aplikatu beharrekoak, bereziki UDALBIDE Elkarlan Elkartearen Estatutuak eta haren sarrera Bazkuneren Erroldan, eta orobat ikusirik Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Toki Erakundearen Zerbitzu Arautegia.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, zera

E R A B A K I T Z E N D U

Lehenena.- UDALBIDE Elkarlan Elkarteari zenbateko honetako dirulaguntza ematea: lau mila eta bostehun (4.500 €) euro, 2010eko ekitaldirako jarduketara programan aurreikusita dauden jarduerak finantzatzeko, indarra duen antolamendu juridikoarekin eta udal eskumenarekin bat baitatzen jarduerak horiek.

Bigarrenena.- Ebazpen hau jakinaraztea UDALBIDE Elkarlan Elkarteari.

Hirugarrenena.- UDALBIDE Elkarlan Elkarteari onetsitako zenbatekoa ordaintzea, dirulaguntzaren baldintzak arautzeko hitzarmen bat aldeztu aurretik izenpetuta.

V.- BENEDITARREN ARTXIBATEGIA ERAIKITZEARI DIRULAGUNTZA .-

Lazkaoko Aita Beneditarren egoitzan eraikitzen ari den Euskal Dokumentaziorako Agiritegia gordeko duen eraikinaren eraikuntza lanen azken egiaztagiria eta fakturak ikusi ondoren, berauei udal arkitekto teknikoak bere oniritzia eman diela kontutan izanda eta agiritegi honen eraikuntzarako Aita Beneditarren eta Lazkaoko Udalaren artean izenpetuta dagoen hitzarmenaren baitan, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Lazkaoko Aita Bene-



ditarrei, obra egiaztagiri eta faktura hauen guztizko zenbatekoaren %17,15ko dirulaguntza, hau da, HEMERETZI MILALAUHUN ETA HOGEITA SEI EURO eta HIRUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (19.426,76 €) ematea erabakitzen du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko sei terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large loop and a horizontal line.

